

GAZTEEI ZUZENDUTAKO EKIMENA EKUADORREN

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, z.k.g., 20500— duenak, ekimen bat abiatuko du. Hain zuzen, 23 eta 30 urte bitarteko LABORAL Kutxaren 10 bezero gazte Ekuadorrera joango dira, MUNDUKIDE Fundazioak antolatutako bidaia batean, 5. atalean, «Parte-hartzaileak» izenekoan, jasotakoaren arabera. 2022ko irailaren 10etik 30era bitartean egingo da bidaia, eta Bilbo izango du abiatzeko eta itzultzeko puntua (datak eta egun-kopurua gutxi gorabeherakoak dira, eta aldatu egingo dira txartelak eskuratu ahala).

2.- Ekimenaren esparrua eta doakotasuna

Ekimen hau doakoa eta borondatezkoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

LABORAL Kutxak ez du erantzukizunik izango beraren borondatezkoak ez diren inguruabarrengatik aldatetak edo ezeztapenak gertatzen badira, ezta bidaiari gorabeheraren bat jazotzen bada ere.

3.- Sustapenaren helburua eta prozedura

Zozketa bat egingo da, eta honako hau izango da saria:

- Ekuadorrerako 10 lagunentzako bidaia bat. Bidaia horren helburua Ekuadorreko errealitatean murgiltzea da, bertako jendearekin biziitzea eta bertako kultura eta beharrak ezagutzea, baita bertako proiektu eta proposamen jasagarriak ere.
- 2022ko irailaren 10ean irtengo dira (data gutxi gorabeherakoa da, eta aldatu egingo da txartelak eskuratu ahala)
- Esperientzian zehar MUNDUKIDE Fundazioko kide den monitore batekin egongo dira.

Bidaiari parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dituzte bezeroek:

- LABORAL Kutxaren bezeroa izatea.
- 23 eta 30 urte bitarteko (biak barne) pertsona fisikoa izatea.
- LABORAL Kutxaren webguneko (www.laboralkutxa.eus) gazteen ataleko parte hartzeko inprimakia betetzea, 2022ko maiatzaren 20a baino lehen (egun hori barne). Tramite hori doakoa da.
- Pasaporte indarrean izatea.
- Irabazle bakoitzari sari bakarria emango zaio. Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izatekotan, egunean eta positiboan izan behar dituzte harreman ekonomiko eta entitatearekin kontrataturiko produktuak eta/edo zerbitzuak. Behin soilik har daitezke parte pertsona fisiko gisa.

- Irabazleak saria onartzen badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren izena eta saria ematean ateratako argazkiak (baldin badaude) LABORAL Kutxak egoki deritzen baliabide telematiko edo inprimatuetan argitaratzeko, sustapenaren emaitzaren berri emateko.
- Ekimenean parte hartzeak berekin dakar partekatutako edukien gaineko jabetza intelektuala eta irudi-eskubideak lagatzea. Hori horrela, bidalitako partaidetzaren ondorioz legozkioken ustiapen-eskubide intelektualak, industrialak edo irudikoak laga behar dizkio parte-hartzaileak LABORAL Kutxari. Irabazleak baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta ordezkoiari emango zaio.

Saridunak ezingo du eskudirua jaso sariaren trukean.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu:

Kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak, baita taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietateetako langileak eta kanpainarekin zuzeneko lotura duten pertsonak ere.

4.- Iraupena eta eremua

Sustapen hau Espainiako lurralde osoan gauzatuko da.

Zozketan izena emateko epea 2022ko maiatzaren 20an amaituko da.

5.- Irabazlea eta ordezkoak aukeratzea eta saria jakinaraztea eta ematea

Irabazleek LABORAL Kutxako bezeroak izan behar dute edo egin behar dute honako prozesu hau onartu ahal izateko:

- Zozketa 2022ko maiatzaren 23an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean, betiere inprimakia egoki bete badute.
- 200 hautagaitza zozkatuko dira.
- 2022ko maiatzaren 31ra arte, MUNDUKIDE Fundazioak 200 hautagaitzak aztertuko ditu. Horien artean, MUNDUKIDE Fundazioak 30 hautagai aukeratuko ditu, inprimakiko erantzunen arabera. MUNDUKIDE Fundazioak aukeratutako pertsona horiek elkarrizketatuko ditu.
- 30 elkarrizketa horiek egin ondoren, azkenean Ekuadorrera joango diren 10 gazteak aukeratuko ditu MUNDUKIDE Fundazioak, bere hautapen-irizpideen arabera.
- MUNDUKIDE Fundazioak uztailaren 24a baino lehen emango die erabakiaren berri Ekuadorrera joango diren 10 gazteei.
- Jakinarazpena jaso ondorengo 48 orduetan onartu beharko dute irabazleek partaidetza.

NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango, eta irabazleek egunean eta positiboan izan beharko dituzte harreman ekonomikoa eta entitatearekin kontrataturiko produktuak eta/edo zerbitzuak. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

Elkarrizketatutako 30 lagunak aukeratzen diren egunaren ondorengo 48 orduetan saridunen batekin

harremanetan jartzerik ez badago, entitatearen datu-basean bezeroaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkioentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz. Saridunak ezingo du sari horren ordezkio beste bat eskatu.

6.- Sariaren zerga-sistema

Ekimen honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. LABORAL Kutxak ordainduko du sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipearen zenbatekoa.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

7.- Erreserbak eta mugak

Iruzurra egin dela ulertuko da kasu hauetan, baina ez horietan bakarrik: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Ekimenean zehar halako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea ekimenetik kanpo geratuko da zuzenean, eta, saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du inolako erantzukizunik izango, saria ematean edo erabiltzean gertatzen diren gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gertatzen diren atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek sustapenaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, sustapenean parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi batean erabiltzerik ez egotearen edo haien funtzionamendua eten izanaren, erabiltzaileek horiek iruzurrez erabiltzearen eta, bereziki baina ez esklusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izandako akatsen ondorioz gertatzen diren kalte-galerengatik.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du ekimenaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du sustapenaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko, aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean kalte-galeraren bat suertatzen bada.

8.- Datuen babesa

Datuen tratamenduaz LABORAL Kutxa arduratuko da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak tratatu egingo dituela ekimen honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak, batetik ekimenean parte hartzea tramitzatzeko, bestetik irabazlea izanez gero sariaren berri emateko eta, azkenik, saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Inprimakia betetzen duten parte-hartzaileek baimena emango diote LABORAL Kutxari, inprimaki horren bidez emandako datuak MUNDUKIDE Fundazioarekin partekatzeko, horren ustez esperientzia solidario honetan inplikatzeko ondoen prestatuta dauden 10 pertsonak aukeratzeko helburu bakarrarekin.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango ditu parte-hartzaileak. Horretarako, bere nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) protecciondatos@laboralkutxa.com helbide elektronikora idatzi beharko du, edo, bestela, ohiko postaren bidez, helbide honetara jo: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur daiteke:

<https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>.

9.- Oinarriak onartzea

Ekimenean parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

10.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor litezkeen erreklamazioak edo ezadostasunak ebazteko.